

## **1 ZER DA?**

---

“BEKA BIKAIN” RURAL KUTXAK bere gizarte-ekintzaren bidez bultzatutako ekimena da, 2023/24 ikasturtean Batxilergoko eta Lanbide Heziketako erdi-mailako ikasketak Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) zentro ofizial batean amaitu eta gainditu dituzten gazteei zuzendua.

Helburua da gazteen prestakuntza sustatzea eta ikasketetan egindako ahalegina saritzea, etapa akademikoan lagunduz eta emaitza onak sustatuz etorkizun profesionalerako zubi gisa.

100 euroko laguntza emango da ikasleak 2023/2024 ikasturteko azken notetan lortutako bikain bakoitzeko, oinarri hauetan zehaztutako betekizun eta epeak betetzen badira. Edonola ere, gehienez hiru bikain sarituko dira ikasle bakoitzeko.

2023/24 ikasturteko azken kalifikazioetan ikasleak ateratako bikain bakoitzeko 100 euroko laguntza emango da, gehienez ere hiru bikain (300 euro arteko laguntza), betiere oinarri hauetan zehaztutako baldintzak eta epeak betetzen badira.

## **2 NORK PARTE HAR DEZAKE?**

---

Ikasle hauek har dezakete parte deialdi honetan:

- Eskaera egin den unean 30 urte edo gutxiago dutenek.
- 2023/2024 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikastetxe ofizial batean maila akademiko hauetakoren bat urrikerik atera gabe gainditu dutenek:
  - Batxilergoko 2. maila.
  - Lanbide-heziketako erdi-mailako 2. maila.
- Acrediten haber obtenido uno o más sobresalientes en alguna de las asignaturas evaluadas.

RURAL KUTXAKo bezeroei eta bezero ez direnei zuzenduta, beka nahitaez RURAL KUTXAN ikaslea titular den banku-kontu batean ordainduko da.

## **3 EPEAK ETA DATAK**

---

- Eskatzeko epea: 2024/06/24tik 2024/09/30era.
- Kontuan ordaintzea: Entitateak onesten duenetik 30 egun naturaleko epean ordainduko da beka.

## **4 NOLA ESKATU?**

---

Oso erraza da. BEKA BIKAIN % 100 online edo RURAL KUTXAKo edozein bulegotan eska daiteke (<https://www.ruralkutxa.com/eu/bulego-kutzazain-bilatzailea>).

- Online eskatzeko:
  1. <https://www.ruralkutxa.com/eu/bekabikain> web-orrira jo behar da, eta datu pertsonalak jarri eskaera-inprimakian (oinarri hauetako 3. puntuan ezarritako epeen barruan egin behar da).
  2. 2023-2024 ikasturteko espediente akademiko ofiziala erantsi behar da ([Ikasgunea](#) plataformatik deskargatu behar da).
  3. Eskaera jasotakoan, haren egoeraren berri emango zaio eskatzaileari.
- Aurrez aurre eskatzeko:
  1. RURAL KUTXAKo bulego batera joan eta datu pertsonalak eta 2023-2024 ikasturteko espediente akademiko ofiziala eman behar dira ([Ikasgunea](#) plataformatik deskargatu behar da).
  2. Adingabeak badira, aurrez aurre eskatu behar da beka nahitaez RURAL KUTXAKo bulego batean, legezko tutoreekin batera betiere.

## **5 ESPEDIENTE AKADEMIKOAREN BETEKIZUNAK**

---

Ezaugarri hauek dituzten nota ofizialak baizik ez dira baliozkoak izango:

- 2023/24 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikastetxe ofizialetan lortutako notak, Batxilergoko 2. mailakoak edo Lanbide-Heziketako erdi-mailako 2. mailakoak.
- 2023/24 ikasturtean lortutako azken notak, 9 eta 10 zenbakikoak.
- Ikasturteko azken notak (azken ebaluazioa); hiru hilekokoak, partzialak eta abar ez dira kontuan hartuko.
- 2023-2024 ikasturteko espediente akademiko ofiziala, Ikasgunea plataformatik deskargatua.
- Notek PDF formatuan egon behar dute, edukia argi eta garbi ikusteko moduan. Pantaila-argazkiak eta argazkiak ez dira baliozkoak izango.
- Hauek argi eta garbi agertu behar dira: ikaslearen izen osoa eta NANA, egindako titulazioa, kalifikazioa zein mailatan lortu zuen, ikasgaia eta lortutako kalifikazioa (zenbakizkoa).

## **6 BESTE BETEKIZUN BATZUK**

---

“BEKA BIKAIN” RURAL KUTXako bezeroek eta bezero ez direnek eskatu ahal izango dute, baina RURAL KUTXako kontu batean ordainduko da, eskatzailea titularra den horretan.

Ildo horretatik, eskaera hauek bazter geratuko dira:

- Eskatzeko epea (oinarrien 3. puntua) bukatuta RURAL KUTXAn kontu baten titularra ez den oro.
- Dokumentazioa eguneratuta ez izateagatik kontua ordainketetarako blokeatuta duen oro.
- Oinarri hauetan zehaztutako betekizun eta epe guztiak betetzen ez dituen oro.

## **7 JAKINARAZPENAK**

---

RURAL KUTXAK hau jakinaraziko du:

- Eskaera bete izanaren egiaztapena. Egiaztagiria posta elektronikoz iritsiko da.
- Eskaera osorik ez badago edo/eta zuzena ez bada, eskatzailearekin harremanetan jarriko da haren berri emateko.
- Garrantzitsua da emandako helbide elektronikoa eta telefonoa erabilgarri daudela eta erabiltzeko moduan daudela egiaztatzea..

## **8 KONTSULTAK ETA ZALANTZAK**

---

Edozein kontsulta, zalantza edo iradokizun [bekabikain@ruralkutxa.com](mailto:bekabikain@ruralkutxa.com) helbide elektronikoaren bidez bidal daiteke. Halaber, “Zalantzak dituzu?” atalera jo dezakezu, <https://www.ruralkutxa.com/es/bekabikain> web-orrian edo Rural Kutxako edozein bulegotan.

## **9 AZKEN AZALPENAK**

---

“BEKA BIKAIN” laguntza ematea oinarri hauetan ezarritako puntuak betetzearen mende egongo da, eta, azken batean, RURAL KUTXAREN irizpidearen mende.

RURAL KUTXAK Oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen direla berrikusiko du, baita aurkeztutako dokumentazioa zuzena eta egiazkoa dela ere, eta erabakia apelaezina izango da.

Halaber, eskatzailea entitateko bezero gisa onartzea eta ekintza hau egiteko kontuak irekitzea RURAL KUTXAK kontuak irekitzeko duen protokoloaren mende egongo dira.

Ekimen honen oinarriak <https://www.ruralkutxa.com/es/bekabikain>, webgunean daude eskuragarri, orok haien berri izan dezan eta parte-hartzaileentzako informazio-kanal eskusibito gisa, eta ez da onartzen beste hitzezko informazio batzuk aipatzerik.

Ekimen honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak eta RURAL KUTXAREN irizpideak onartzea, beka hauen ondoriozko edozein arazo edo desadostasuni buruz ebazteko.

## **10 DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA**

---

**Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?** Zure datuen tratamenduaren arduraduna Rural Kutxa/Caja Rural de Navarra, S.C.C. da (helbidea: Foruen plaza 1, PK 31003, Iruña). Datuen babesaren ordezkariarekin harremanetan jartzeko, egizu helbide elektroniko honen bidez: [protecciondedatos@ruralkutxa.com](mailto:protecciondedatos@ruralkutxa.com).

**Zertarako erabiliko dira?** Datuak Rural Kutxako Beka Bikain ekimenean parte hartzeko eta onuradunei beka emateko erabiliko dira.

Datuak deialdi hau bukatu eta bi hilabeteko epean gordeko dira.

**Zergatik tratatzen dira datuak? – Legitimazioa.** Zure datu pertsonalak aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako emandako baimenarekin bat tratatuko dira.

**Nor dira zure datuen hartzaileak?** Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, salbu eta legez behartuta. Zerbitzuren baten hornitzaileak ere izan daitezke hartzaile, datuen babesaren alorreko agintariak onartutako ereduarekin bat datozen kontratu eta bermekin bat betiere.

**Zer eskubide dituzu?** Datuen titularra zaren aldetik, datuak eskuratu, eguneratu, aldatu eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita beste eskubide batzuk ere, eta, horretarako, hona jo behar duzu: Rural Kutxa/Caja Rural de Navarra S.C.C (helbidea: Foruen plaza 1, 31003, Iruña). Gure edozein bulegotan egin dezakezu, edo [protecciondedatos@ruralkutxa.com](mailto:protecciondedatos@ruralkutxa.com) helbidean, zure NANaren edo zure nortasuna egiazta dezakeen beste edozein lege-agiriren kopia erantsita.

**Nork bermatzen ditu zure eskubideak? Nori egin diezaiokezu erreklamazioa?** Erreklamazio bat egin edo datu pertsonalen tratamenduari buruz Espainian dagoen erregulazioari buruzko informazio gehiago lortu nahi baduzu, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia da (Jorge Juan, 6 28001-Madrid) agintaritza eskuduna.